

1

Zer gertatzen da
Berdinbidean Bizkaian?
Urriak 15: Landa-
inguruko Emakumeen
Nazioarteko Eguna



2



Ezagutzen... Sonia Barrondorekin

3

Gure Udalak martxan ... Ugao
Miraballeseko Udala



4

Praktika Egokiak Bizkaian
HAZI



Zer gertatzen da
Berdinbidean
Bizkaian...?



Urriak 15

Landa-inguruko Emakumeen Nazioarteko Eguna



Iragan urriaren 15ean Landa-inguruko Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatu zen. Nazio Batuek 2008. urtetik ezarri zuten data hori, emakumeen funtzio eta ekarpen erabakigarriak aitortzeko helburuz, betiere, nekazaritza eta landa-inguruaren garapena, elikagaien segurtasuna eta pobrezia errotik ezabatzea sustatze aldera.

EAEko udalerrien %51 dira landakoak, eta azaleraren %59 betetzen dute, baina biztanleen %4,9 baino ez dute barne hartzen. "Hiri" inguruetan baino emakume portzentaje txikiagoa dago bertan, biztanleen %48 dira emakumeak.

Bizkaian, emakumeen %36k nekazaritza sektorearen inguruan egiten dute lan.

2015eko urriaren 15ean Eusko

Jaurlaritzak Emakume Nekazarien Estatutua onartu zuen, arlo horretan emakumeen berdintasuna hobetze aldera.

Duela gutxi egindako azterketa baten bitartez, ondorioztatu da emakume nekazariak landa-inguruaren irudia hobetu nahi dutela; hiri-inguruarekin berdintasunezko tratua izatea gustatuko litzaieke, aurkako izan gabe, elkarren osagarri izan daitezen. Euskal nekazaritza sektorearen erabilgarritasunaren inguruan kontzientziatu nahi dute hiri-ingurua; iraganeko sinbolo izateaz gain, etorkizunerako parte garrantzitsua ere badelako. Era berean, burokrazia murrizteko eskaria luzatzen dute besteak beste, kontrataziorako laguntzak areagotu daitezela eta tokiko produktuaren garrantzia azpimarratu dadila.



Buruz buru ...

2

Sonia Barrondo – Lehen sektoreko teknikaria Gorbeialde

Irabazi asmorik gabeko elkarte da Gorbeialde, Arratia Nerbioi eskualdeko garapen sozioekonomikoa sustatzea helburu duena.

20 urte baino gehiago aktibo daraman elkarte hau lehen sektorea mantentzeko asmoz sortu zen, hori landa-ekonomiaren aktibo nagusia zelakoan. Gaur egun, landa-inguruaren garapenak nekazaritza arlokoak ez diren beste arlo batzuk ere barne hartzen ditu.

Zertan eta nola lan egiten ari den hobeto ezagutzeko, elkarrizketa egin diogu Sonia Barrondori, Elkarte honetako lehen sektoreko teknikariari:

Zer nolako harremana duzu landa-inguruarekin?

Landa-udalerrri batean bizi izan naiz beti, eta lan arloan ere inguru horretako jardueretan aritu izan naiz. Orozkon bizitzea eta bertan lan egin ahal izatea oso alderdi garrantzitsuak izan dira beti niretzako bizitzan erabakiak hartzerako orduan.

Zer nolako lanak egiten dituzu egunerokotasunean? Eta aisialdian?

Orain ADR Gorbeialden lan egiten dut lehen sektoreko teknikari. Azken asteotan, adibidez, nekazaritza eta abeltzaintza arloko plastikoak bildu eta birziklatzeko proiektua martxan jartzen ari naiz Arratia-Nerbioi eskualdean. Horrela, programari atxiki zaizkion baserriak bisitatu behar ditud Urduñan, Orozkon, Arrankudiagan, Zeberion, Zeanurin, Ubiden... haien beharrian eta kontsumoetara zein metodo egokitzen den ondoen aztertzeko eta zerbitzua gauzatu ahal izateko kontratuak sortzeko, edukiontzia banatzen laguntzeko, eta abar.

Gorbeialde

Landa Garapenerako Alkartea
Asociación de Desarrollo Rural

Bestalde, beste proiektu batzuk ere kudeatzen ditut, azoka eta merkatuen dinamizazioa, besteak beste.

Duela bi igande Lemoako azokan egon ginen tokiko eta sasoiko produktuen erabilera sustatzen, sukaldaritza tailer eta dastaketa baten bitartez...

Egia esan, gauza ezberdin ugari egiten ditut; beste proiektu batzuk errazte-prozesuetan zentratuago daude, sektore publiko eta pribatuaren arteko topaketa errazteko bideak ezartzean, alegia (udalek, abeltzainekin batera, mendi publikoen kudeaketan aurrera egiteko prozesuak, esate baterako).

Izugarri gustatzen zait nire lana; eta, ondorioz, lan/aisialdiari dagokion ordutegia mugitu egiten zait sarri eta ez dut aisialdirako denbora askorik izaten. Baina, beti esaten dudanez, nire egunak besteek adina ordu dauzka; lehentasunak ezartzea da kontua. Horregatik guztiagatik, aisialdi gisa ulertzen den hori ez dut askorik izaten; lanaren ondoren familia dago, eta ondoren niretzako denbora... Baina egun batzuetan ez dut horretarako astirik izaten.

Izan al duzu oztoporik emakume izateagatik?

Nik ez nuke oztopo hitza erabiliko; sentitu izan dut, bai, lan arloan egiteko guztietan ia perfekzioan aritzeko beharra, normalean gizonena izan ohi den inguru batean neurria emateko. Gogoan dut, batez ere, izan nuen lehenengo lana. Hiru pertsonaz osatutako talde batean aritzen nintzen basogintza ETE baten kudeaketa-lanetan, non hornitzaile, bezero, langile gehienak gizonak ziren. Inoiz ez nuen sentitu oztoporik jarri zidatenik, baina orain "genero betaurrekoak" jartzen ditudanean, ohartzen naiz auto-exijentzia handia ezartzen niola neure buruari.

Uste duzu zure lanbidean bereizi egiten direla emakumeen eta gizonen funtzioak?

Landa-inguruaren garapenean ez dago ezberdintasunik. Ezberdintasun handia igartzen dut baserri arloaren ordezkaritza publikoan. Duela 10 urte, auzokidea (artzain bat) etorri zitzaidan, eta Orozkoko abeltzainen elkarteko zuzendaritza batzordean parte hartzeko proposamena egin zidan (abeltzainak diot, izen hori izaten jarraitzen duelako).

Lagungarri izan nintekeela iruditzen zitzaien, garai hartan ustiatagietako lur-faktorearen garrantziaz eta gure menu publikoetako larreen erabilera bermatzeko beharraz hausnartzen ari zirelako.

Ni baino lehenago, batzordean ez zegoen emakumerik. Ez diot hori harrokeriaz, inondik ere. Animatu egin nintzen eta Batzordeko kide izan nintzen duela urte pare bat arte; oso garai polita izan zen, baina ez zen erreleborik egon eta guztiek gizonak izaten jarraitzen dute.

Gauza bera gertatzen da bazkide gaituen merkaturatze-kooperatiban (Harakai Koop.). Sortu zenetik aritu naiz artezkaritza batzordean; besteekin berdintasunean egiten ditut ekarpenak eta ez naute ezberdin tratatzen, baina, momentuz, ez da beste emakume bazkiderik animatu parte hartzera.

Esandako azken horren harira, zenbait kide txantxetan aritzen dira sarri, hala Orozkoko elkartean nola kooperatiban; izan ere, nekazaritza-arloko ustiatagi asko emakumeen izenean egoten dira, baina sektoreko ordezkari foroetan gizonak izaten dira, batez ere. Gure kasua, ordea, kontrakoa da, ustiatagiaren titularra nire bikotekidea da; bera aritzen da jo eta su egunez egun, eta neu aritzen naiz "gizartean ordezkari"... Gure kasuan ez da barne-eztabaidarik egon; berak mendia eta behi zein ardiekin lan egin nahiago du, eta ni ondo moldatzen naiz beste alderdi horretan.



3

Gure Udalak martxan ...



Emakume Ekoizleen Nekazaritza Azoka Ugao Miraballeseko Udala

2001. urtetik, Ugao-Miraballeseko Udalak Emakume Ekoizleen Nekazaritza Azoka burutzen du emakumearen nazioarteko egunaren harira (Bizkaiko Foru Aldundiaren, LANDA XXI Nekazaritza arloko Emakume eta Familien Elkartearen eta Bilbao Bizkaia Kutxaren laguntzaz).

Jarduera horren helburua da, batik bat, emakumeek landa-inguruan duten parte-hartze soziala eta enplegua sustatzea, baita nekazaritza-inguruetan bizi eta lan egiten duten emakumeen nekazari-identitatearen prestigio eta aitortza soziala hobetzea ere. Azoka hori emakumearen figura aldarrikatzeko erakusleihoa izan dadin nahi dute, landa-ingurua mantentzeko oinarrizkoa baita, landa-inguruko emakumeen ahalduntze-prozesuan beste urrats bat ematen saiatzeko. Bestalde, jarduera hori jai-programazio baten barruan kokatzen da, jai-inguruan zein udalerriko kale nagusietan musika eta txistularien kalejirak daudelarik. Hala, Ugaoko Kultur Etxeko eskulan-tailerretako emakumeen parte-hartzea ere izaten da ekimenean, plazan ezartzen diren bost karpetan artisau-erakusketa egiten baitute.

Urteen joanean, merkatu hau erreferente bilakatu da landa-inguruan emakumeek duten garrantziaren gainean dibulgazioa eta sentsibilizazioa egiteko eta lehen sektore horretan berdintasun-politikak hedatzeko beharraz ohartarazteko.



Praktika Egokiak



4

Euskadiko landa-inguruetakoko emakumeen ahalduntze soziopolitikoa



Euskadiko landa-inguruetakoko Emakumeen Nazioarteko Egunaren XXIII. Edizioak 150 pertsona inguru bildu ditu

emakume horiei guztiei eskainitako ekimenean, Zuazo-Kuartangon (Araba). Jardunaldia lurralde historiko bakoitzeko udalerrri ezberdin batean burutzen da urtero, Landa-inguruko Emakumeen Batzordeak eta Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailburuordetzak antolatuta, eta HAZI Fundazioko idazkaritza teknikoak gainbegiratuta (Landa, itsasertz eta elikaduraren garapena). Aurtengo jardunaldien helburua izan da landa-inguruko

emakumeen ahalduntze soziopolitikoa sustatzea, horien garrantzia azpimarratzeko eta parte-hartze sozial zein politikoa modu eraginkorrean sustatzen lagunduko duten baldintzak ezartzeko.

150 pertsonak baino gehiagok parte hartu dute eta 6 emakumeren testigantzak entzun ahal izan dituzte, euren lana ikustarazteko beharra aldarrikatu dutenak.

Informazio gehiago:

<http://www.hazi.eus/eu/>

